

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA<



HITZARGIAK

Ezagutza partekatu. Hizkuntzak bultzatu.
Share Knowledge. Promote Languages.
Compartir conocimiento. Promover lenguas.
Partager connaissance. Promouvoir langues.



AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
Soziolinguistika Klusterra	3
<i>Hitzargiak</i> egitasmoaren zentzua eta helburuak	3
2. Egitura eta bazkideak	4
2.1 Patzuergoa	4
2.2. Batzorde Zientifikoa	5
2.3. Proiektu-taldea	5
2.4. Jarraipen Batzordea	5
3. Kronograma	6
3.1. Lehen fasea: helburuak eta garapenerako marko operatiboa	6
3.2. Bigarren fasea: Partzuergoa eratu	6
3.3. Hirugarren fasea: egitasmoaren diseinua	6
3.4. Laugarren fasea: unibertsoaren mugak definitzea	6
3.5. Bosgarren fasea: argiak piztu (kasuak identifikatu)	7
3.6. Seigarren fasea: elkar argitu (kasuak elkarrizketan jarri)	7
3.7. Zeharkako fasea: egitasmoaren komunikazioa	7
4. Komunikazio plana	7
5. Baliabideak	8



1. Sarrera

Donostia/San Sebastián 2016 fundazioak (aurrerantzean DSS2016EU) bideratutako “Europar hizkuntza biziberritzeko jardunbide egokiak identifikatzeko proiektua”-k, diru laguntza eman dio Soziolinguistika Klusterrak proposatutako *Hitzargiak* egitasmoari.

Soziolinguistika Klusterra

Soziolinguistika Klusterra (aurrerantzean SLK) soziolinguistikaren eremuan jarduten duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Aldi berean, berrikuntzako bitarteko erakundea da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen baitan.

Erakunde honek, euskal hiztun-komunitatearen erronkei, interesei eta beharrei eta euskal soziolinguistika ezagutza teorikoaren garapen-beharrei erantzuteko diziplinarteko eta kalitatezko ikerketa, garapen, berrikuntza eta ezagutzeko kudeatzeko proiektuak lankidetzan burutzen ditu. Eta ibilbide honetan, SLK-k abian jarri berri du Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburua proiektu orokorraren baitan garatuko den *Hitzargiak* egitasmoa.

Hitzargiak egitasmoaren zentzua eta helburuak

DSS2016EUren hiriburutza-proiektu orokorrak, besteak beste, Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ditu bere oinarrian. Hain zuzen ere, aniztasun horren defentsaren alde jokatzeko, elkar bizitzaren eta elkar aberasteari alde jokatzeko ere badelako.

Europako hizkuntza-komunitate bakoitza ez dago isolatuta eginkizun horretan. Hizkuntzen ahultze-prozesua mundu-mailako fenomeno orokorra den bezala, hizkuntzen biziberritze-prozesuak ere elkarrekin harremanetan daude. Zenbat eta hizkuntza-komunitate gehiago aktibatu HINBE prozesuetan are eta aukera gehiago izango baitute emaitza arrakastatsuagoak izateko.

Hizkuntza desberdinen biziberritze-prozesuak, jardunbide eta praktika egokiak elkar ezagutzeak, esperientzien partekatzeak, eta elkar laguntzeak nazioarteko mugimendua sendotu dezakete, horrela ikuspegi globala eta tokian tokikoa uztartuz, etorkizun hobea lantzeko aukera areagotzen da.

Hitzargiak egitasmoak ere ikuspegi horri eusten dio, eta hizkuntzen biziberritze-prozesuetarako aktibo bat sortu nahi du, ezagutza transferitu eta elkar aberasteko sistema bat izan dadin. Transferentzia sistema honek oinarritzat hartuko ditu biziberritze ahaleginean ari diren hizkuntza-komunitateen mesederako garatu diren kasuak, eta hauek identifikatu eta elkarrekin harremanetan jarriaz batera, ezagutza hori partekatu eta etorkizunera begirako saretze-lan bat egitea ahalbidetuko duen prozesua sortzea du xede.

Honakoak dira *Hitzargiak* egitasmoaren helburu nagusiak:



1. Europako tokian tokiko hizkuntza zehatzetako biziberritze-prozesuarentzat garatu diren edo garatzen ari diren **ekimen, kasu, proiektu, jardunbide, ahalegin edo estrategia bereziki berritzaile, eredugarri edo arrakastatsuak identifikatzea**. Horiek guztiak “**kasu eredugarri**” kontzeptua erabiliz izendatuko dira proposamenean zehar.
2. Europako hizkuntza-komunitateen arteko **harreman-sarea sendotzea, elkar ezagutzea eta elkar elikatzea**, ondorengo urteetan tokian tokiko hizkuntzaren biziberritze-prozesuetan eraginkorrago izateko borondatearekin.

Eta honakoak azpi helburuak:

1. “Kasu eredugarriak” hobeto ulertzeko, ekimen horietan parte hartzen duten **agente aktiboak elkar ezagutzea eta beraien eskarmentua elkarri transferitzea**.
2. Kasu horien guztien elkar ezagutzarako **plataforma eskaintzea**, euren arteko harremanetatik ikasbideak erdiesteko.
3. Egitasmo honen baitan jositako sare hori etorkizunean ehuntzen joan dadin, plataforma birtuala eskaintzea, **etorkizuneko harremanak bideratuko dituen webgunea eraikiz**.

2. Egitura eta bazkideak

Hitzargiak egitasmoa SLK-k zuzendu, koordinatu eta exekutatu du. Dena den, SLK-ren izaera eta proiektuak diseinatzeko eta exekutatze moduan ohikoa denez, egitasmo hau ere “prokomun” filosofiapean lantzea da asmoa. Hau da, proiektu baten bueltan lan-komunitatea eratu ohi du SLK-k, hainbat lan-modu eta lan-baliabide zehatz kontuan hartuta.

Egitasmoaren baitan, beraz, honako lantaldeak eratuko dira: Partzuergoa, Batzorde Zientifikoa eta Proiektu-taldea, zeinek bere funtzio eta egiteko propioak izango dituzten.

2.1 Patzuergoa

Partzuergoa, Europa mailan *Hitzargiak* egitasmoaren bidez egin nahi dugunaren isla izango da: ezagutza eta esperientziak trukatzuz euskara biziberritzeko ahaleginean ari den hizkuntza-komunitatearen isla. Honakoak dira Partzuergoaren helburuak eta funtzioak:

- (a) Euskararen biziberritze-prozesuan parte-hartze aktiboa duten askotariko eragileak *Hitzargiak* egitasmoa babestea, eta haren exekuzioaren zuzentasuna bermatzea.
- (b) *Hitzargiak* egitasmoa gauzatzen laguntzea eta zentzu horretan, euskararen eremuko eragile horien guztien nazioarteko harreman-sareak baliatzea, kasu eredugarriak detektatzeko eta kasu horien arteko elkarriketa sustatzeko.
- (c) Partzuergo-kideek bultzatu dituzten kasu eredugarriak *Hitzargiak* egitasmoaren mesedetan jartzea, Europako askotariko eragileekin trukerako lehengai gisa.
- (d) *Hitzargiak* proiektua gauzatzeko Jarraipen Batzordea proposatzea.

Partzuergoaren osaera ahalik eta aberatsena zein eraginkorrena izan dadin, esparru publiko eta pribatuko 24 erakundez osatua egongo da. *Hitzargiak* egitasmoan zehar hirutan elkartuko dira



Patzuergoa osatzen duten kideak. Nolanahi ere, Proiektu-taldeak eta SLK-k proiektuaren garapen-mailaren informazioa trukatu du Partzuergoko kideekin, horretarako ezarriko diren bide eta maiztasunarekin.

2.2. Batzorde Zientifikoa

Batzorde Zientifikoa Unibertsitate bai eta gizarte zein hezkuntza arloko sei erakundez osatua egongo da, eta egitasmoan zehar bost aldiz elkartzea aurreikusten da. Honakoak izango dira bere zeregin nagusiak:

- Egitasmoaren ikerketa-unibertsoa zehaztuko du: zein lurralde-eremu izango duen *Hitzargiak* egitasmoak, zein hizkuntza gutxitutako esperientziak bildu nahi dituen, zein eragile-motak bultzatutako kasuak identifikatuko dituen, kasu horien ezaugarriak zeintzuk diren eta zein gizarte-esparrutakoak izango diren kasu horiek. Partzuergo-kideen Europako mailako harremanak eta sareak baliatuko dira, kasu horiek detektatzeko.
- Hizkuntza gutxituen biziberritzeko ahaleaginean kasu eredugarritzat zein kontsideratuko diren definituko du.
- *Hitzargiak* egitasmoaren estrategia irizpide kuantitatiboak edo kualitatiboak lehenetsiz zehaztuko den erabakiko du. Partzuergoak, Batzorde Zientifikoak eta Proiektu-taldeak zehaztu beharko dute alderdi hau.
- Kasu arrakastatsu horiek definitzeko irizpideak zehaztuko ditu, horretarako txantiloia sortu eta onartuz. Beraz, txantiloia horrek, kasua, kasu eredugarritzat jotzeko bete beharreko ezaugarriak jaso eta deskribatuko ditu.

2.3. Proiektu-taldea

Hitzargiak egitasmoaren Proiektu-taldeak, egitasmoa diseinatzeaz gain, egitasmoa gauzatzeko ardura du (egitasmoaren exekuzioaren alderdi batzuez Partzuergoa eta Batzorde Zientifikoa arduratzen badira ere). Proiektu-taldea, unibertsitate eta hizkuntza aholkularitzek bai eta SLK-ak osatutako bost kideko taldeak formatuko du.

2.4. Jarraipen Batzordea

Hitzargiak proiektuaren egikaritzea, egokitasuna eta helburuen betetze-maila ikuskatuko duen Jarraipen Batzordea proiektuaren Partzuergoak hautatutako kideen eta Donostia Kultura 2016ko bulegoko kideen artean osatuko da. Jarraipen Batzordea elkartzeko maiztasuna izendapenarekin batera erabakiko da. Nolanahi ere, gutxienez, lau aldiz elkartuko da 2015eko iraila eta 2016ko maiatza bitartean, bi hilabeteko maiztasunarekin.



3. Kronograma

Hitzargiak egitasmoak zazpi urrats orokor izango ditu. Edonola ere, kontuan hartu behar da proiektuan parte hartzen duten askotariko eragileen arteko harremanek ezinbestean moldaketak eragingo dituztela honakoan.

3.1. Lehen fasea: helburuak eta garapenerako marko operatiboa

2015eko irailean hasita, Donostia 2016k eta Proiektu-taldeak egitasmoaren helburuak lantzea eta adostea izango dute xede. Horretarako, arreta berezia jarriko da lortu nahi den efektua eta ondorio iraunkorrak irudikatzeari; gauzatu ondoren geratzea nahi den arrastoa eta *humusa* irudikatzeari eta Donostia 2016 egitasmo orokorraren baitako kokapena zein izango den erabakitzeari. Lehen fase honen amaierako emaitza txosten labur bat izango da, egitasmoaren zentzua zehaztu duena eta Donostia 2016tik egingo diren beste egitasmo batzuekiko loturak azalduko dituena.

3.2. Bigarren fasea: Partzuergoa eratu

2015eko iraila eta abendua artean, Donostia 2016k eta Proiektu-taldeak Patzuergoaren eraketa bideratuko dute, Patzuergoak egin beharreko bilera urriaren erdi aldean izan behar duela kontuan hartuz.

3.3. Hirugarren fasea: egitasmoaren diseinua

Garai beretsuan, eta behin Patzuergoa osatua dagoelarik, Proiektu-taldeak eta Patzuergoak eskuz esku hasi beharko dute lanean. Batetik, Proiektu-taldeak egitasmoaren alderdi guztien behin betiko planifikazioa egingo du, proposamen honetan jasotakoak, egitasmoaren 1. fasean jasotakoak eta Patzuergoaren lehen bileran jasotakoak kontuan hartua. Bestetik, planifikazioan egitasmoaren helburuak, ekintzak, epeak, arduradunak, egituren osaera eta funtzioak, mugarriak, bilera-egunak eta diru-baliabideak zehaztuko dira. Eta amaitzeko egindako planifikazio hori DSS2016EUK onartu eta Patzuergoari jakinaraziko zaio.

3.4. Laugarren fasea: unibertsoaren mugak definitzea

2015eko irailean, urrian, azaroan eta abenduan Batzorde Zientifikoak eta Proiektu-taldeak mapa interaktibo birtuala egingo dute. Web aplikazio hori proiektuaren garapenerako bitarteko gakoa izango da, egitasmoaren hurrengo faseetako batzuetan elikatzen etaosatzen jarraituko baita.



3.5. Bosgarren fasea: argiak piztu (kasuak identifikatu)

2015eko azaroan, abenduan eta 2016ko urtarrilean, otsailean eta martxoan, Proiektu-taldeak kasu esanguratsuen identifikaziorako honako urrats hauek eman beharko dituela aurreikusten da. Batetik, *Hitzargiak* egitasmoak aintzat izango dituen hizkuntza kasuak sailkatu ahal izateko, “kasu eredugarriak” kontzeptua definitzea, hots, egitasmoan parte hartuko duten “kasu eredugarri” gisa hautemateko baldintzak eta ezaugarriak zeintzuk diren zehaztuz. Bestetik, aukeratutako kasu horiek esplizitatzeko bitartekoa definituko da, esaterako txantiloia labur baten bidez; kasua identifikatzeko, kasua deskribatzeko eta kasuaren ezaugarriak jasotzeko balioko duena. Ondoren, dokumentu txantiloia hori Europako eragile eta sareei helaraziko zaie eta epe bat emango zaie euren ustez eredugarri izan daitezkeenak dokumentu txantiloien bidez *Hitzargiak* egitasmoa helarazteko. Honen ostean, kasu eredugarrien ezaugarri eta baldintzak zehaztu dituen Batzordeak, epai-mahai funtzioa hartuko luke, eta kasu-proposamenak heldu ahala, horiek aztertu eta onartutzat joko ditu. Onartutako kasu bakoitza mapa interaktiboan bistaratuko da. Amaitzeko, mapa interaktiboan kasu eredugarria kokatzearekin batera, hizkuntza horretako oinarrizko informazio soziolinguistikoa ere eskainiko da.

3.6. Seigarren fasea: elkar argitu (kasuak elkarrizketan jarri)

2016ko apirilean eta maiatzean, Proiektu-taldeak *Hitzargiak* egitasmoaren mapa interaktibo birtuala argiz betetzeko fasea amaitu ondoren, argien arteko elkarrizketa unea abian jarriko da; ezagutzaren transferentzia birtualaren faseari ekinez hala. Fase honen helburua izango da antzerakoak diren kasuak (gizarte-arlo berean garatu direnak edo gizarte-arlo berean ez baina helburu bera dutenak) elkarrizketan jartzea, ezagutza transferituz harremanak sendotu, sinergiak bilatu eta elkarrekin jarduteko ohiturak areagotuz. Honetaz gain *Hitzargiak* egitasmoaren aldetik harreman horiek dinamizatu eta sustatzeko lana egingo da.

3.7. Zeharkako fasea: egitasmoaren komunikazioa

2015eko irailetik 2016ko maiatzak 15era bitartean, Proiektu-taldeak egitasmoaren komunikazio lana bideratuko du. Hainbat hizkuntzetan egingo den komunikazio lan honek, herritarrek *Hitzargiak* egitasmoa ezagutu eta barnera dezaten balioko du. Honen baitan egingo dira, besteak beste, hedabideen kudeaketa, arlo multimedia eta digitala, eta harreman publikoak.

4. Komunikazio plana

Komunikazio-ekintzak sortuko dira, hainbat hizkuntzatan, herritarrek *Hitzargiak* egitasmoa ezagutu eta barnera dezaten. Komunikazio-arloak izango dituen zereginen artean daude hedabideen kudeaketa, arlo multimedia eta digitala, eta harreman publikoak.



Komunikazio lan horretan paper esanguratsua beteko du *Hitzargiak* egitasmorako espreski sortuko den webguneak. Izan ere egitasmoaren helburuak gauzatzeko, webgune eleaniztuna garatuko da; egitasmoan zehar identifikatutako kasu berritzaileak eta arrakastatsuak, esperientziak eta proiektuak datu-base batean bilduko dituen, eta etengabe osatu eta elikatuko dena.

Webgunearen helburua da kasu horien guztien elkar ezagutzarako plataforma eskaintzea, euren arteko harremanetatik ikasbideak erdiesteko eta egitasmo honen baitan jositako sare hori etorkizunean ehuntzen joan dadin. Bai eta, hizkuntza horren inguruko oinarrizko informazio soziolinguistikoa eskaintzeko aukera ere ematea ere. Baina horretaz gain, webguneak informazioa modu argi eta egituratuan erakutsiko du, publikoarentzat erakargarria izango da, eta *Hitzargiak* egitasmoaren helburu eta ekintzen erakusleho bihurtzeko helburua izango du.

5. Baliabideak

Hitzargiak egitasmoa gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide metodologiko eta teknikoak, baliabide teknologikoak eta baliabide materialak honakoak dira, besteak beste.

- **Giza baliabideei** dagokionez, aipatu dugunez, Partzuergoa, Jarraipen Batzordea eta Batzorde Zientifikoa eta Proiektu-taldea aipatu behar dira. Azken honek, egitasmoa diseinatzeaz gain, egitasmoa gauzatzeko ardura du, egitasmoaren exekuzioaren alderdi batzuek Partzuergoa eta Batzorde Zientifikoa arduratzen badira ere. *Hitzargiak* egitasmoaren Proiektu-taldea diziplina anitzekoa da, euskararen biziberritze prozesuaren alderdi ezberdinetan hainbat erakunderen ezagutza eta esperientzia baliatzeko aukera ematen duena.
- **Baliabide metodologikoei eta teknikoei** dagokionez, bereziki zainduko dira honako alderdi hauek: zientifikotasuna, autonomia, gardentasuna, irekitasuna, aniztasuna, ororen ongia, ardura eta erantzukizuna, begirunea eta enpatia.
- **Baliabide teknologikoei** dagokionez, egitasmoaren garapenean zehar oinarrizko elementua da *Hitzargiak* egitasmoaren webgunea bera, eta ondorioz, egitasmoaren baliabide teknologiko nagusia webgunea bera da. Webguneaz gain, *Hitzargiak* egitasmoa gauzatzeko giza harremanetarako egungo baliabide aurreratuenak erabiliko dira.
- **Baliabide materialei** dagokionez, SLK-k konpromisoa hartzen du bere bulegoan egin beharreko egokitzapenak egiteko *Hitzargiak* egitasmoa gauzatzeko ardura izango duen Proiektu-taldea hartzeko. Beraz, informatika-, telefono- eta altzari- ekipamenduei dagokionez, SLK-k bere bulegoa hornituko du, *Hitzargiak* egitasmoa dagokion bezala garatu ahal izan dadin.